


Diskoak

IKER BARANDIARAN



Trumbo.
Trumbo.
Matasellos.
Iraupena: 39'34".
10 euro.

Jazarpenetik jaiotako soinu gordina

TALDE BERRIA dator Gasteiztik, baina partaideak eskarmentudunak dira, Kashbad, Neubat, Sorkun, Näut eta beste hainbat proiektu ezagunetatik datoze-lako. Izenak aurreratu bezala, hirukote formatutik abiatuta, rock zikin eta pisutsua egiten dute, erritmo indartsua duena, stonerra alegia. Oinarri erritmiko errepikakor eta sakonaz gain, barneraino sartzen diren gitarra riff bereziak dira taldearen marka nagusia. Rock primitiboenetik eda-

ten duen estilo horrek, indarra, abiadura eta melodia batzen ditu; eta hirukoteak behar den bezalako soinu gordina lortu du Arabako desertuan barrena. Euskaraz idatzitako hitzetan hausnarketa bereziak, irudimentsuak egiten dira, eta naturaz edo giza izaeraz aritzeaz gain, Dalton Trumbok bezala beste askok jasaten duten jazarpena gelditzen dira agerian.

www.myspace.com/trumbotaldea

Trumbo

«Sorgin-ehizak ez du etenik hemen ere»

Zein inspirazio aurkitu duzue Duran? Ez dago AEBetara joan beharrik soinu gordina lortzeko?

Inspirazioa hamabost metro koa-drotan sortu da oso hilabete gutxi-tan, eta Duranetxe estudioa ezuste-ko oasi bilakatu zitzaigun. Urko Aranburu teknikariarekin edozein tokitan lor daiteke soinu zikiño-soa; pozik gaude.

Zer da Dalton Trumborengandik miresten duzuen? Hemen ere bada antzekorik, ezta?

Trumbok jasandako jazarpenak era-kartzen gaitu. Komunismoaren kontrako sorgin-ehizan kartzelaratu eta deserriratu egin zuten, eta erbes-tetik, ezizenekin, pare bat Oscar ir-a-bazi zituen. Hain urrutira joan gabe, Sarri, Antza, Sastre... beste edozein madarikatu erabilenez gake. Sorgin-ehizak ez du etenik hemen ere.

Iritzia. Kantak eta musika zuentzat egiten duzue?

Gustuko duguna egiten dugu, inori begira egon gabe. Baina gero iri-tziak jasotzen dira. Jubilatuen eta musikazaleen zaletasuna da hori.



Autokritika, ordea, ez dugu besteek esandakoaren gainean egiten.

Niagarak ere zipriztintzen ez bagaitu, zeren alde mugitzeko gai gara?

Jendeak, oro har, joera du handi sentiarazten duen gauzetan baka-rrik parte hartzeko, kontzertua izan edokanpaldia izan. Larritasunak askotan ez du zerikusirik mugiaraz-teko bultzadarekin.

Hiru erregeen mahaia. Tarteka mito-logia eta paganismoa aldarrikatu izan dira; baina paradoxa badirudi

ere, Su Ta Garrek ez du inoiz mendi-zaletasuna aldarrikatu, eta zuek bai. Zer diozue?

Ezina eta beti maldan gora aritu behar izatea islatu dugu. Mendian gora paraje mistiko bat marraztu dugu, bidaia da gure nortasunean eta izaeran barrena, eta aurrera egin ahala atzean ezereza geratzen da; halako bertigoa ematen du, eta noraezean gabiltzalarik, aurrera egin-dako pauso bakoitzeko, bi egiten ditugu atzera. Zer izan ginen asmatu ezinik gabiltza, eta hala ere, oraindik bagara. Gu geu gara mito. ■